



# Basamortu berde jendetsua



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**P**onta das Lajes (Brasil), duela 2.000 urte. Amazoniaren bihotzean bizi ziren gizakiek grabatuak zizelkatu zituzten arroketan, giza aurpegiak irudikatuz.

Brasilgo Amazonia azken 121 urteetako lehorterik larriena jasaten ari da. Ingurumenean eta bertako biztanleengan kalte handiak eragiten ari da lehortea; mugitzeko eta elikagaiak lortzeko ibaiako garraioaren mende dauden mila-kita pertsona inkomunikatuta geratu dira. Baina ur eskasiak eta ibaiaren maila jaisteak ustegabeko berriak ekarri dizkie arkeologoei: orain arte ezagutzen ez ziren lau aztarnategi geratu dira agerian. Ponta das Lajesen, Urucaran eta São Sebastião de Uatumãn arrokan grabatutako irudi antropomorfoak azaleratu dira, eta Anamã hileta-urnak topatu dituzte. Lau aztarnategiak Manaosetik 300 kilometroko perimetroan daude.

Aurkikuntzak aztertzeaz arduratzen ari den Jaime Oliveira arkeologoaren ustez, hain eremu txikian hainbeste aztarna topatu izanak adierazten du oihanaren bihotzean populazioa dentsitate handikoa izan zela. “Ingurunearen ezauzgarriengatik, hemen ez da ohikoa kobazuloak edo aztarnategi monumentalak aurkitzea. Ez daukagu horrelako kokalekurik, baina horrek ez du esan nahi inguru ondo ezagutzen zuten antolamendu sozial konplexurik ez zegoenik”.

Luzaroan pentsatu izan da Amazonian oso gizaki gutxi bizi izan direla, “historia-



EDMAR BARROS

Ponta das Lajesen (Brasil) lehortea hainbat grabatu utzi ditu agerian.

rik gabeko lekua” izan dela, Oliveiraren hitzetan. Baina egun basamortu berdearen ideia baztertuta dago, eta adituek diote oihan tropikal horretan 9-10 milioi pertsona bizi zirela kolonizatzaileak iritsi baino lehen. Kontinenteko beste hainbat tokitan bezala, biztanleen %90 inguru hil ziren XVI. mendearen amaieran eta XVII. mendean, europarrekin izandako enfrontamentuetan eta, batez ere, haiek ekarritako gaixotasunen ondorioz.

Amazonian ez zegoen metropoli handirik, inken edo azteken lurraldeetan bezala, herrixken kontzentrazio handiak baizik. Oihanean eraikuntzarako harri gutxi dago eta eraikinak material organikoz egiten zituzten. Horrek arkeologoen lana zailtzen du, eta interpretazio okerrak egiteko arriskua handitu. Orain, zoritxarrez, egungo biztanleen bizimodu zailtzen duen hori bera izan da arkeologoen lana erraztu duena. ●



BASILEAKO UNIBERTSITATEA

## Neandertal artistak

Duela, 57.000 urte neandertalek lerro mehe batzuk grabatu zituzten La Roche-Cotard kobazuloan (Loiraren bailara, Frantzia), Basileako unibertsitateak *Plo-Sone* aldizkarian argitaratutako azken ikerlanaren arabera. Jean Claude Marquet eta Dorota Wojtczak arkeologoek zuzendu duten lantaldearen ustez, ma-

rra horiek hatzez egin zituzten “modu planifikatu eta egituratuan”, eta, horrenbestez, inoiz aurkitutako grabaturik zaharrenak dira. Ikerlariak oraindik ez dakite grabatuok zer esanahi duten, baina erakusten dute neandertalek arazoiketa sinbolikorako gaitasuna zutela, alegia, lehen artistak izan zirela. ●